

07

EKAINA 2018 JUNIO



Kolorez Bizi

zumaiar

Zumaiaiko Udal Aldizkaria Revista Municipal de Zumaia

ZUMAIA BIZI BIZI



ZUMAIARRENTZAT LANEAN

- 02 Gutuna
- 02-03 Plan eta ordenantza berriak
- 04-05 Aurrera eramandakoak
- 06-07 Berriak
- 08-11 TAO

ZUMAIARREN TXOKOA

- 12-13 Agenda
- 14-15 Elkarrizketa:
Tokiko merkataritza indartzen
- 16-17 Erreportajea:
Pertsona edadetuen behatokia

ALDERDIEN IRITZIA

- 18-19 EAJ-PNV
Legealdiko azken txanparako PREST!
EH BILDU
Olatua oso handia da...
- PSE-EE
Uda sasoiari begirako balantzea

Oier Korta



Zumaiako alkatea

NONDIK GATOZEN ETA NORA HELDU NAHI DUGUN JAKITEA DA ETORKIZUNA ERAIKITZEKO GILTZARRIA

Urtea ziztu bizian igaro zaigu eta konturatu garenerako, heldu da berriro uda. Berotasuna, argitasun ordu luzeak... eta horrekin batera, noski, oporraldia. Batzuek dagoeneko argi izango dute non pasa nahi dituzten udako deskantsu egunak; beste zenbait lagun, aldiz, orain hasiko dira mundu mapan euren opor helmuga bila.

Edonola ere, gutako asko kanpora joan ohi gara eta gu bezalaxe, baita beste herri, hiri eta eskualdetako biztanleak ere. Batzuk joan, besteak etorri. Hori da, hain zuzen, udako turismoaren paradoxa. Zumaia kanpo turista bilakatzen gara, kanpotik datozenak Zumaian turistak edo bisitariak diren bezalaxe.

Ildo horretan, Zumaia azken urteotan erakargarritasun turistiko handiko herri bilakatu da. Kostako herria da, horrek dakartzan erakargarritasun guztiakin, noski, eta horrez gain, gure herriak paraje ikaragarria du eta zergatik ez esan, herri txikia izan arren, xarma eta giro biziko herria ere bada. Horiek guztiak batuta, nola ez du ba Zumaiak erakarriko?

Erakartzen du, bai, eta harro egoteko modukoa da hori. Baina harrotasuna kezka edo urduritasun ere bilaka daiteke zenbaitetan eta hain zuzen sentimendu kontraerri horiei guztiei aurre egiteko osatu dugu Zumaiako Turismo Plana. 10 sektore, 5 lan eremu eta 142 ekintza jasotzen ditu, etorkizunera begira, turismoaren bilakaerari eta sor daitezkeen egoera berriei aurre egin edo egokitzeko bidea zehaztuz.

Izan ere, gizarte aldakor honetan, garrantzitsuenak baita nondik gatozen eta, bereziki, nora heldu nahi dugun jakitea.

Para cuando nos hemos querido dar cuenta ya tenemos encima el verano. Y al igual que muchos de nosotros escogemos irnos fuera de Zumaia para pasar las vacaciones, otros muchos nos escogen a nosotros como destino para ello. He ahí la paradoja del turismo. Unos se van y otros vienen.

Claro que ante ese ir y venir de visitantes, en ocasiones, nos invade un sentimiento de miedo y/o preocupación ante lo desconocido o lo que está por llegar. Y para hacer frente a todos esos sentimientos contrapuestos hemos elaborado recientemente el Plan de Turismo de Zumaia, un Plan que nos define el camino a seguir para hacer frente y adaptarnos a los nuevos tiempos. Porque, al fin y al cabo, lo que más importa es tener claro de dónde venimos y sobre todo, a dónde queremos llegar.

ELKARBIZITZA ETA ONGIZATEA OINARRI DITUEN TURISMO PLANA



Urte bete luzeko bidaia egin ostean, iritsi gara helmugara. Osatu eta aurkeztu dugu azkenean, 2018-2021 bitartean Zumaiako Turismo Plana izango den dokumentua.

Turismo alorrean, etorkizuneko aldaketa zein erronkei egokitu edo aurre egiteko ibilbide orria izango den dokumentua, alegia.

Prozesu ireki eta aberatsa izan da. Iritzi eta ikuspuntu ezberdineko hainbat eta hainbat lagun elkartu ditugu, sektore eta alor ezberdinetatik eratorriak guztiak: politikariak, akademikoak, ostalariak, merkatariek, ekintzaileak, enpresariak...

Guztiak dute turismoaren inguruan iritzi eta pentsamolde bakar eta desberdina. Eta guztiak dira, noski, baliotsu eta baliagarriak. Iritzi, pentsamolde eta sentimendu desberdin horiek guztiak osatzen baitute Plan honen giltzarria, Turismo Planaren muina: ANIZTASUNA.

Tras un año de largo viaje hemos completado por fin el Plan de Turismo de Zumaia, que entre 2018-2021 será nuestra hoja de ruta a la hora de hacer frente a futuros cambios y retos que se nos presenten en el ámbito turístico. Un plan basado en la diversidad y cuya principal prioridad es la de garantizar la convivencia y el bienestar de las personas.

**Kontsultatu Planaren nondik norakoak
Consulta el Plan en:**

www.zumaia.eus/sailak/turismoa

HONDARTZETAN ERE, BIZIKIDETZA ETA GOZAMENA BERMATZEA LEHENTASUN ETA HELBURU



Uda sasoiari erreparatuz, berriki onartu dugu Zumaiako hondartzen erabilera arautzeko ordenantza. Helburua argia da: Itzurun eta Santiago hondartzen erabilera egokia bermatu eta espazio horietan erabiltzaile ororen arteko bizikidetza eta gozamena bermatzea.

Izan ere, hondartzek aukera eta erabilera desberdinak izan ditzakete. Batzuk erlaxatzera joaten dira bertara; beste batzuk aldiz, bainatu edota paseatzera, baita kirola egitera ere. Edozein delarik gure aukera, argi dago guztiok dugula gustuko hondartzaz gozatzea eta horregatik, hondartzen erabilera librea, publikoa eta doakoa da Zumaiain. Baina hori horrela izanik ere, guztiek goza dezagun bertan, ezinbestekoa da erabiltzaileen arteko bizikidetza bermatzea.

Eta hori da, hain zuzen, ordenantza honen xedea. Horretarako, noski, erabilera anitzez haratago, ingurumena, garbitasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna ere kontuan hartu dira, orain, bihar eta beti, gure herriko hondartzek gozamen eta aisialdi gune bikain bezain apartak izaten jarrai dezaten.

La playa nos ofrece infinidad de opciones: podemos hacer deporte, pasear, relajarnos, bañarnos... Pero sea cual sea la opción escogida, lo que sí está claro es que a todas y todos nos gusta disfrutar de ella.

Por ello es imprescindible garantizar siempre una adecuada convivencia entre sus usuarios, que es precisamente el principal objetivo de esta ordenanza, de forma que las playas del municipio sean siempre un lugar de ocio y diversión para todas y todos.

Informazio gehiago Más información: www.zumaia.eus/eu/udala/ordenantzak

INGURUMENA ETA AISIALDIA: BIAK BAT ZUMAIKO BARATZE PARKE BERRIAN

Badugu azkenean herrian ingurumena eta aisialdia uztartzeko espazio berri bat: Zumaiako Baratze Parkea.

Basusta eremuan kokatu da, espazio hori eta helburua da berdegune horren bitartez, aisialdirako topagune berria sortzea eta aldi berean ingurumenarekiko errespetua sustatzea.

Horretarako baratze gunea sortu du Udalak Basustan, non, nekazaritza jardueraz haratago, ekologia, autokontsumoa eta elikadura osasuntsuaren inguruko heziketa eta sentsibilizazioa lehenetsi eta bermatuko diren.



Por fin podremos disfrutar en Zumaia de un espacio donde el medioambiente y la diversión van de la mano.

Se trata del nuevo Baratze Parkea del municipio, un espacio de huertas situado en la zona de Basusta, donde, más allá de la actividad agrícola, se desarrollará una educación y sensibilización hacia el medioambiente, la ecología, el autoconsumo o una alimentación sana y equilibrada.

Informazio gehiago Más información: www.zumaia.eus/eu/udala/ordenantzak

AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK INICIATIVAS LLEVADAS A CABO

OTSAILA 2018 FEBRERO

Hondakinak biltzeko sistema mancomunatu berria BAGOAZZ

Otsailaren 21ean indarrean jarri zen Zumaian zabor biltzeko sistema mancomunatu eta berria. Sistema hori Urola Kosta Udal Elkarteak abiatu du elkarte osatzen duten bost udalerrietako alderdi politiko guztien adostasunarekin (EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Irabazi eta Orain). Sistema bateratua izanik, hondakinen kudeaketa modu efizienteagoan egingo da, baliabideak optimizatuz, eraginkortasuna areagotzeko.



Nuevo sistema de residuos mancomunado

El 21 de febrero entró en vigor el nuevo sistema mancomunado, sistema liderado por la Mancomunidad Urola Kosta y que cuenta con el apoyo de todos los grupos políticos de los cinco municipios que la conforman: EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Irabazi y Orain. Al tratarse de un sistema mancomunado se optimizan los recursos y se ofrece así un servicio más efectivo y eficiente.

MARTXOA 2018 MARZO

Euskara eta euskal kulturaren "Enigma Bizia" mundura zabalduz



Zein da euskararen jatorria? Ba al du beste hizkuntzaren batekin parekotasuna? Horiei eta beste galdera batzuei erantzuna eman eta geurea den altxor eta balio maite zein kuttunena ezagutzera emateko sustatu eta sortu du Zumaia Udalak, hain

zuzen, "Enigma Bizia", bereziki bisitari erdaldunei zuzendutako bisita gidatu berria.

90 minutuko ibilaldi gidatu honen bitartez, bisitariak, besteak beste, gure hizkuntzaren, kulturaren, mitologiaren, kirolaren edota ohituren berri ezagutu ahal izango dute

Dando a conocer "El Gran Enigma" del euskera y la cultura vasca

El euskera así como la cultura vasca siguen suscitando mucho interés entre las personas que visitan tierras euskaldunas y concretamente para saciar dicha curiosidad el Ayuntamiento de Zumaia ha promovido una nueva iniciativa en torno al euskera y a la cultura vasca: "El Gran Enigma" una visita guiada que ofrece a las y los visitantes la oportunidad de conocer más sobre la lengua, la cultura o las costumbres vascas, entre otras muchas curiosidades.

APIRILA 2018 ABRIL

Udala egoera ekonomiko onean

Udal diru kutxek inoiz baino egoera osasuntsu eta onagoa azaldu dute aurtengoan, hain zuzen, 5.513.635€ko gerakinarekin



itxi baitu Udalak 2017. urtea. Une honetan, beraz, duela 3 urte baino 3.978.987€ gehiago ditu Udalak, bereziki, urtez urte udal gobernua jarraitutako zuhurtziaren printzipioari esker.

Horrek, noski, Udala zorpetu gabe, herritarrentzat interesgarriak diren proiektuak gauzatzeko aukera ematen du, besteak beste: Artadiko saneamendua, Skatepark berria, Marianton parkearen estaldura, udaltzainen eraikinaren birgaitzea...

Buena situación económica del Ayuntamiento

El Ayuntamiento cierra el 2017 con un remanente de 5.513.635€, 3.978.987€ más que hace tres años. Estos datos ratifican la buena situación de las arcas municipales, en gran medida, gracias a los principios de estabilidad y prudencia aplicados año

tras año por el equipo de gobierno. Eso permitirá la realización de proyectos para el municipio y el conjunto de la ciudadanía, tales como el saneamiento de Artadi, el nuevo skatepark, la cubierta del parque Maranton, la reforma integral del edificio de la Policía Municipal...

MAIATZA 2018 MAYO

Itzurungo hondartzan hobekuntza lanak

Hondartza denboraldiari heltzerako hainbat hobekuntza egin ditu Udalak Itzurungo eremuan. Esate baterako, bertako kantinako ertzetan itxitura mugikorak jarri ditu, bereziki galerna edo egun haizetsuetan bertan babestuago egon ahal izateko. Horrez gain, Itzuruntxiki eremuan (eskuin aldeko putzua) alga pilaketek eragindako usain txarren arazoari erantzuna emateko pasabide azpian uraren joan-etorri naturala ahalbidetzeko lanak egin ditu Udalak. Horrela, algekin batera ura ez da bertan pilatuko eta horri esker, hein handi batean, algen usteltze prozesua eta horrekin batera eremuko usain txarrak saihestuko dira.

Halaber, Gipuzkoako Kostetako Zerbitzu Probintzialak hondartzako ezker aldeko jaitsieran dauden harri solteak kendu ditu eta etorkizunera begira bertako segurtasuna hobetu eta bermatzeko, harri-jauziez babesteko egurrezko hesoiez egindako egitura arin bat jarri du aipatu jaitsieran.

Trabajos de mejora en la playa de Itzurun

El Ayuntamiento ha realizado diversas mejoras en el entorno de la playa de Itzurun: ha instalado cierres laterales móviles en la cantina, ha realizado una actuación en la zona de Itzuruntxiki (las piscinas de la derecha) para dar una solución al problema de los malos olores generado por las algas que se acumulan en la citada zona y a su vez, el Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa ha retirado las piedras sueltas situadas en el acceso izquierdo



de la playa e instalado una hilera compuesta por estacas de madera con el objeto de proteger la zona de futuros desprendimientos y mejorar y garantizar así la seguridad de la zona.

Estazio zaharreko eraikinaren berrerabilpen proiektua



Zumaiako udal gobernuak Estazioko eraikin zaharrean kokatu nahi ditu turismo bulegoa eta Algorri Interpretazio Zentroaren zerbitzu osagarria, ulertuta, aipatu biak direla Flyscharen eta gure ondare naturalaren balio geologiko eta historikoa herriitik kanpo nazioarte mailan ezagutzera emateaz arduratzen direnak eta bien lana, beraz, zeharo osagarria dela gure ondarearen benetako balioa ezagutarazteko garaian.

Estazio Zaharreko eraikina eraikin babestua da, gainera; beraz, hori erosteak helburu eta balio erantsi bat du: Zumaiaren historian garrantzitsua den eraikin horren degradazio eta zaharkitze prozesua eten eta erabilera berri bat ematea, alegia.

Gaur egun, aipatu eraikinaren jabea da Eusko Jaurlaritza. Orain, elkarlanean dihardute Udalak eraikina Jaurlaritzari erosi eta hemen aipatutako proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Nuevo uso para el antiguo edificio de la estación

El equipo de gobierno quiere ubicar en el antiguo edificio de la estación la oficina de turismo y un servicio adicional del Centro de Interpretación Algorri, entendiendo que, concretamente estos dos centros son los encargados de dar a conocer el Flysch y con él nuestro patrimonio geológico e histórico y que por tanto, su labor es totalmente complementaria a la hora de dar a conocer el verdadero valor de nuestro patrimonio.

BERRIAK

ZUMAIAKO III. BERDINTASUN PLANA OSATZEKO BIDEAN

III PLAN DE IGUALDAD DE ZUMAIA



III. Berdintasun plana

Zumaiako Udaleko Berdintasun sailak jada jarri du martxan III. Berdintasun Plana osatzeko prozesua. Elhuyar enpresa izango da Plana idaztearen arduraduna eta horretarako, lehenik eta

behin, egungo egoeraren diagnosi sakona egingo du. Bide horretan, orain arte jasotako memoriak, aurreko bi Berdintasun Planak eta prozesuaren inguruko protokoloa igorri dizkio besteak beste Udalak aipatu enpresari.

Horrez gain, Udalak eta Elhuyarrek elkarlanean elkarriketak egingo dituzte herriko hainbat eragileekin: Gazteguneko hezitzaileak, gizarte hezitzaileak, hezkidetza programako arduraduna. Zumaiako mugimendu feministako kideak...

Baina, noski, Plana osatu eta dokumentuak egungo behar, arazo zein erronkei erantzun diezaion, ezinbestekotzat jo du Udalak herritarren iritzia jasotzea. Horretarako, hainbat saio ireki egin ditu jada: bata udal teknikariekin, bestea herritarrekin eta azkena, udal zinegotzi guztiekin. Saio horien helburua da guztien iritzia eta ekarpenak ezagutu eta jasotzea, Plana ahalik bezain anitz eta osatuena izan dadin.

Behin hori guztia egin ostean, diagnosa osatuko da eta uda ostean, beste hainbat saio ireki antolatuko dira diagnosi horren berri eman eta Plana osatzeko.

Ya está en marcha el proceso de redacción del III Plan de Igualdad de Zumaia. La empresa Elhuyar será la encargada de redactar el Plan y a lo largo del proceso realizarán diversas entrevistas a distintos agentes municipales y se llevarán a cabo sesiones abiertas con la ciudadanía así como con las y los concejales y técnicos del Ayuntamiento con el fin de conocer y recoger sus propuestas y realizar así un Plan que dé respuesta a las actuales necesidades, problemas y/o retos futuros.

KIROLDEGIAN ERE, ENERGÍA ERAGINKORTASUNA BERMATUZ UN POLIDEPORTIVO ENERGÉTICAMENTE EFICIENTE

Herriko energia kontsumoa murriztu eta eraginkortasuna bultzatzearen aldeko apustuan, azken urteotan, hainbat argi aldaketa egin ditu Udalak kiroldegian. Esate baterako, ohiko argi fluoreszenteen ordeztu LED edo beste teknologia berritzaileak jarri ditu.



Oraingoan, ordea, urrats bat gehiago egin du eta igerilekuko zein erabilera anitzeko pistako argi guztiak aldatu ditu. Horri esker, igerilekuan, adibidez, 4000 wattetik 1500 wattera jaitsi da energia kontsumoa eta erabilera anitzeko pistan, aldiz, 20.000 wattetik 6.000ra.

Horrez gain, aurten igerilekuko ur beroa aprobetxatzeko sistema berria jarri da. Izan ere, legez, egunero igerilekuko uraren %5 berritu behar da, hau da, uraren %5 bat atera eta berriarekin ordeztu behar da. Igerilekutik ateratzen den ura, ordea, 27-28 gradutara egon ohi da eta sartzen dena, aldiz, 10-12 gradu bitartean. Sistema berri horren bitartez, igerilekuko ura berritzean, kalera botatzen den uraren beroa berreskuratu eta saretik sartzen den ur hotzari transferitzen zaio. Horrela, 10-12 gradutara sartzen den sareko ura 20-22 gradura arte igotzen da.

Aldaketa horiei guztiei esker, kontsumoa murriztu eta energia eraginkortasuna hobetu zein berrmatzeaz gain, ingurumenari eragindako kalteak gutxitzea ere lortzen da.

En su apuesta por el ahorro y la eficiencia energética, el Ayuntamiento ha realizado diversas mejoras en el polideportivo. Entre ellas, ha cambiado las luces de la piscina así como las de la cancha de baloncesto, reduciendo considerablemente el consumo de energía en las mismas. Asimismo, ha instalado un nuevo sistema en la piscina, mediante el cual, el calor del agua que por ley hay que renovar todos los días y que sale, por tanto de la piscina (un 5%), se transfiere al agua fría que entra por la red de suministro.

EKAINAREN 19AN, UDALEKUEN INGURUKO GURASO BILERA REUNIÓN DE PADRES Y MADRES EN TORNO A LAS COLONIAS ABIERTAS DE VERANO

Jada murgildu gara bete-betean uda sasoian eta haurren oporraldiari erreparatuz, urtero bezala, Zumaia Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztaileko.

Izen ematea jada itxita eta haurren zerrendak osatuta, Udalak guraso bilera antolatu du datorren ekainaren 19an, Aita Mari, zerrenden berri eman eta udalekuen inguruko informazioa helarazteko. Bi saio egingo dira: 17:00etan lehena, euskaraz eta 17:45ean bigarrena, gaztelaniaz.

Con el comienzo de las colonias abiertas a la vuelta de la esquina, el Ayuntamiento ha organizado una reunion de padres y madres el próximo 19 de junio en Aita Mari. La primera sesión será a las 17:00 en euskera y la segunda, a las 17:45 en castellano.

10.000 BIZTANLETARA HELDU GARA ZUMAIAN! ZUMAIA SUPERA LOS 10.000 HABITANTES



Herriko azken errolda datuei erreparatuz, jada 10.000 biztanle baino gehiago gara Zumaian. Hori noski, datu positibo eta pozgarria da guztiontzat, gure herria, bizitzeko herri atsegina den seinale!

Edonola ere, 10.000 biztanleko muga hori pasatzeak ere, arlo instituzionalean aldaketa eta betebeharrak batzuk ere eragiten ditu. Hau da, Udalari dagokionez, datorren urtera begira, zinegotzi kopurua handitzea dakar, 13tik 17ra hain zuzen.

Baina hortaz haratago, biztanle kopuruari erreparatuz, kirol ekipamendu edota gizarte zerbitzu arloan, kopuru horrek markatutako gutxieneko zerbitzuak eskaintzea exijitzen zaio Udalari.

Zumaian, ordea, 20.000 biztanletik gorako herrietan eskaintzen diren zerbitzuak daude bermatuta aipatu bi kasuetan eta bide horretan, Udalak etengabe

jarraituko du lanean zerbitzu horiek eta bestelakoak ere hobetzeko jarraitzeko, etorkizunera begira, Zumaia orain arte bezala hazi eta garatu dadin.

Zumaia ya supera la barrera de los 10.000 habitantes, lo cual trae consigo diversos cambios a nivel institucional. Y es que, de cara al año que viene, aumentará el número de concejales del Ayuntamiento, de 13 a 17. Pero más allá de ello, el Consistorio está obligado a ofrecer un mínimo de servicios en lo que a Servicios Sociales y equipamiento deportivo se refiere. Servicios que en este momento, Zumaia ofrece al nivel de un municipio de más de 20.000 habitantes y que queda, por tanto, totalmente garantizado.

ABIAN DA ZUMAIKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA IKERTZEKO BEKA ARRANCA EL ESTUDIO DE LA HISTORIA SOCIAL DEL EUSKERA

Zumaia Udalak herriko euskararen historia soziala ikertzeko beka deialdia egin zuen martxo



amaieran, eta oinarrietan adierazitako epean hautagai bakarra aurkeztu zen: Imanol Azkue Ibarbia, zumaiaarra. Horrenbestez bera izango da ikerketa egitearen arduraduna.

Ikerketaren helburua da Zumaia euskararen historia soziala aztertzea; zehazki, gai horri lotutako informazioa bildu, ordenatu eta dibulgaziorako prestatzea, alegia. Ilbide hori osorik aztertzea lan izugarria dela jakinik, lehen deialdi honetan 1766 eta 1966 bitarteko epea hartuko du ikerketak.

Imanol Azkuek era askotako iturriak arakatzea proposatu du: Zumaia Artxiboa (aktak batez ere), inguruko beste artxibategi batzuk, hemerrotekak, ahozko lekukotzak (ahotsak.eus gunekoak tartean), gaiari buruzko azterlanak eta Zumaia eta zumaiaarrei buruzko lanak: historikoak, biografiak eta abar. Euskaltzaindiak proposatutako metodologia hartuko du eredutzat eta horretarako prestakuntza berezia jasoko du.

El Ayuntamiento de Zumaia ha adjudicado al zumaiaarra Imanol Azkue la beca para estudiar la historia social del euskera.

Dicho estudio tiene como objetivo reunir y ordenar toda la información al respecto y posteriormente divulgarla y darla a conocer. Para ello se ha tomado como eje de estudio el periodo que va desde 1766 a 1966.

EKAINAK 15 JUNIO

IRAILAK 15 SEPTIEMBRE

Salbuespenak Excepciones

- **Ardantzabidea**
- **Errotazio altuko A gunea**
Zona de alta rotación A

urte osoan indarrean
en vigor todo el año

APARKALEKU SISTEMA BERRIA NUEVO SISTEMA DE APARCAMIENTO



1. ZONA

ARDANTZABIDEA
(Urte osoan Todo el año)

2. ZONA

ALDE ZAHARRA-SAN JOSE AUZOA

3. ZONA

LARRETXO

4. ZONA

ARRANGOLETA-AMAIA PLAZA

5. ZONA

POLIGONOA

GUNEAK KOLOREKA ZONAS POR COLORES



GUNE TXURIA

ZONA BLANCA

Bertakoentzat bakarrik (egoiliarak) *Solamente para residentes*



GUNE URDINA

ZONA AZUL

Errotazio altuko A, B eta C gunea *Zona de alta rotación A, B y C*

Ibilgailua Zumaian erroldatuta dutenentzat DOAN.
Gainerako ibilgailuek lehen 30 minutuak doan. Bi kasuetan, tiketa inprimatu behar da.

GRATIS para los vehículos empadronados en Zumaia. El resto de vehículos tendrán gratis los 30 primeros minutos. En ambos casos es necesario imprimir el ticket.

ERROTAZIO ALTUKO A GUNEA ZONA DE ALTA ROTACIÓN A

Urte osoan indarrean *En vigor todo el año*

- A1: Moilaberriko zubitik Saregile plaza arte
Desde el puente del jorobado hasta Saregile plaza
- A2: Amaia Plaza
- A3: Anbulatorioa

Astelehenetik ostiralera *De lunes a viernes*
08:00-20:00
Larunbatetan *Sábados*
08:00-13:00

ERROTAZIO ALTUKO B GUNEA ZONA DE ALTA ROTACIÓN B

Uda sasoian indarrean

- B1: Zubitxikitik Moilaberriko zubira (ibai aldean)
- B2: Alai (Eroski aurreko gunea)

Astelehenetik ostiralera *De lunes a viernes*
08:00-20:00
Larunbatetan *Sábados*
08:00-13:00 (B1) 08:00-20:00 (B2)

ERROTAZIO ALTUKO C GUNEA ZONA DE ALTA ROTACIÓN C

Urte osoan indarrean *En vigor todo el año*

- Merkatuan (udaletxe parean) *Zona del mercado (frente al Ayuntamiento)*

Astelehenetik ostiralera *De lunes a viernes*
08:00-15:00
Larunbatetan *Sábados*
08:00-12:30



GUNE BERDEA

ZONA VERDE

Egonaldi ertaineko gunea

1. Saregile plazatik Parolbidea arte
2. Itsas kiroldegia

3. Axular
4. GKN

Astelehenetik igandera
De lunes a domingo
10:00-21:00

Ibilgailua Zumaian erroldatuta dutenentzat DOAN.
1 eta 2 gunean gehienez 6 ordu. 3 eta 4 gunean gehienez 14 ordu. Gainerako ibilgailuek ordaindu egin beharko dute. Bi kasuetan, tiketa inprimatu behar da.

GRATIS para los vehículos empadronados en Zumaia. En la zona 1 y 2 tiempo de estacionamiento máximo 6 horas. En la zona 3 y 4, zona de estacionamiento máximo 14 horas. En ambos casos es necesario imprimir el ticket.



GUNE HORIA

ZONA AMARILLA

Zamalanak eta oinezkoen guneak *Zona de carga y descarga y peatonal*

- Erribera kalea eta Eusebio Gurrutxaga plaza *Calle Erribera y plaza Eusebio Gurrutxaga*

EKAINAK 15 JUNIO

IRAILAK 15 SEPTIEMBRE

Salbuespenak Excepciones

- **Ardantzabide**
- **Errotazio altuko A gunea**
Zona de alta rotación A

urte osoan indarrean
en vigor todo el año

EGOILIARRAK | EZ EGOILIARRAK RESIDENTES | NO RESIDENTES



EGOILIARRAK RESIDENTES

Non eskatu behar da bertakoen txartela?

Txartela TAO bulegoan eskuratu ahal izango da, Juan Belmonte 10 zenbakian eta horretarako beharrezkoa izango da gida baimena aurkeztea.

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera

09:00-14:00 | 17:00-20:00 (uda osoan zabalik)

Halaber, **ezinbestekoa da ibilgailua Zumaian eta norberaren etxebizitzan errolatuta egotea.**

Nork eskura dezake egoiliar txartela?

- Araututako gunek bizi direnek
- Zona horietan lan jarduerak egiten dituztenek
- Bigarren etxebizitza Zumaian dutenek
- Egoiliarrak ez diren langileek
- Landa lurretako eta herrigunetik kanpoko auzotarrek (Oikia, Narrondo eta Artadi)

Txartelen prezioa

Aurten ez da egoiliar txartel mugarik egongo bigarren etxebizitza Zumaian dutenen kasuan izan ezik. Horiek gehienez bi txartel jaso ahal izango dituzte.

Uda denboraldirako txartelaren kostua honakoa izango da: lehen txartela 10€, bigarrena 15€, hirugarrena 20€ eta laugarrena eta ondorengoak 25€.

Informazio gehiago

taozumaia@iparksa.com | 943 84 55 62

¿Quién puede solicitar la tarjeta de residente?

La tarjeta se podrá solicitar en la oficina de la OTA situada en el bajo nº 10 de Juan Belmonte y para ello será necesario presentar el permiso de conducir.

Horario:

De lunes a viernes

09:00-14:00 17:00-20:00 (abierto todo el verano)

Es imprescindible que el vehículo esté registrado en Zumaia y en el mismo domicilio que su titular.

¿Dónde hay que solicitar la tarjeta de residentes?

- Las personas que viven en las zonas reguladas
- Las que operan en la zona de residentes
- Las personas con una segunda vivienda en Zumaia
- Las y los trabajadores no residentes
- Las personas que residen en zonas rurales y barrios situados en las afueras (Oikia-Narrondo-Artadi)

Precio de las tarjetas

En 2018 no habrá límite de tarjetas de residente por domicilio, excepto las personas con segunda residencia en Zumaia, quienes solamente podrán obtener dos viñetas.

El coste de la tarjeta de residente por periodo estival será de 10€ la primera, 15€ la segunda, 20€ la tercera y 25€ la cuarta y las siguientes a ella.

Más información

taozumaia@iparksa.com | 943845562

EZ EGOILIARRAK NO RESIDENTES

Non aparkatu dezakete TAOrik gabe?

- Kanpoaldeko aparkalekuak: Kirol portuan (Saraunean)
- Estazioko industria gunea

¿Dónde pueden aparcar sin OTA?

- Aparcamientos disuasorios: puerto deportivo (saraunea).
- Zona industrial de la estación:

TXALUPA ZERBITZUA SERVICIO DE BARCO



ORDUTEGIA HORARIO

Ibilbidea Recorrido	Txomin Agirre	Txomin Agirre
	Santiago hondartza Playa de Santiago	Kirol portuko aparkalekua Aparcamiento puerto deportivo
Ordutegia Horario	11:15-13:45 14:45-19:45	11:00-13:30 15:10-20:30
Maiztasuna Frecuencia	30 minutu 30 minutos	20 minutu 20 minutos

Erregulazio sistema berriarekin batera, eta herritarren behar zein eskariak aintzat hartuz, aurtengo udan txalupa zerbitzua indartu du Zumaiako Udalak. Horrela, aurrerantzean bi zerbitzu eskainiko dira: bata Txomin Agirretik Santiago hondartzara eta bestea, abiapuntu beretik kirol portuko aparkalekura.

Zerbitzu horren helburua da aipatu bi puntuak erdigunearekin lotzea, horrela herrian ibilgailuaren erabilera eta presentzia gutxitzeko.

Con la entrada en vigor del nuevo sistema de regulación de 2018 y en respuesta de la demanda y petición ciudadana, el Ayuntamiento ha reforzado este año el habitual servicio de barco, que pasará a ofrecer dos líneas: una directa desde Txomin Agirre a la playa de Santiago y la otra, desde el mismo punto de partida al aparcamiento del puerto deportivo. El fin de dicho servicio es conectar ambos puntos con el centro urbano del municipio sin necesidad de utilizar el vehículo para ello.


AUTOBUS ZERBITZUA AUTOBUS URBANO



Aurten lehen aldiz herrian barrena mugitzeko autobus zerbitzua jarriko du martxan Udalak. Zerbitzuaren helburua da, ibilgailu gorakadaren garaian, herrian autoen erabilera murriztu eta herritarren artean mugikortasun jasangarria sustatzea. Autobus hori uda sasoian egongo da martxan eta joan den azken bi urteetako txu-txu trena ordezkatzuko du.

Este año el Ayuntamiento pondrá en marcha por primera vez una línea de autobús urbana para desplazarse por el municipio. Su principal objetivo es reducir los desplazamientos que se realizan en coche dentro del municipio, especialmente en el periodo de mayor afluencia de vehículos y fomentar, entre la ciudadanía, una movilidad sostenible. Dicho servicio estará disponible durante todo el verano y sustituirá al tren txu-txu de años anteriores.

Ordutegia Horario	11:15-13:45 14:45-19:45
Maiztasuna Frecuencia	30 minutu 30 minutos
Geldiuneak Paradas	Tren geltokia Estación de tren - Alai auzategia (A3 inguruan) Barrio de Alai (frente a A3) - Otezuri - Jadarre (GKN aparkalekuan) (aparcamiento GKN) - Amaia plaza (autobusak biratzen duen lekuan) (giro-bus) - Larretxo (zubiaaren pareko bidegurutzean) (en el cruce situado frente al puente) - Amaia plaza (Ondartxora sarrera) (entrada de Ondartxo) - Autobus geltokia Parada de autobús (Garoa) - Autobus geltokia Parada de autobús (Kabi) - Tren geltokia Estación de tren



UDA ZUMAIA

EKAINA JUNIO

Gazteguneko udako programa Programa de verano del Gaztegun

Ordutegia Horario

10:00 - 13:30

Astelehenetik ostiralera

De lunes a viernes

Abuztua itxita

Agosto cerrado

Ekintza bereziak astero! Nuevas actividades ¡todas las semanas!

Rafting, Paintball...

Informazio gehiago Más información:
688 612 940 (whatsapp)



txarrak atzean utzi eta desio berriak eskatzeko ere aprobetxatzen dute. Suan salto egin nahi?

El fuego de San Juan simboliza muchas cosas, entre ellas la llegada del verano, el fin del curso escolar, la noche más larga del año... hay incluso quienes aprovechan para dejar atrás los malos momentos y piden deseos en la hoguera. Y tú, ¿te animas a saltar?

EKAINAK 24 JUNIO

Flysch Trail



Kirolaz zein paisaiatz gozatzea gustuko dutenentzat ekintza aparta da Zumaian urtero jokatz den Flysch Trail lasterketa.

El Flysch Trail es la prueba deportiva perfecta para aquellas personas amantes del deporte y la naturaleza.

EKAINAK 17 JUNIO

89 urtekoen omenaldia

Homenaje a personas de 89 años



Nagusien astearen egitarauaren barruan, urtero bezala, 89 urteko zumaiaarrak omenduko dira.

Dentro del programa de actividades de Nagusien astea el domingo se celebra el homenaje a personas de 89 años.

EKAINAK 23 JUNIO

San Juan sua eta Eki jaia

Asko dira San Juan suarekin batera ospatzen ditugunak: udan sartzea, ikasturte amaiera, urteko gaurik luzeena... Batzuek pasarte



EKAINAK 28 - UZTAILAK 7 28 DE JUNIO - 7 DE JULIO

San Pedro jaia

Fiestas de San Pedro



UZTAILA JULIO

UZTAILAK 1 JULIO

Artisau azoka Eusebio Gurrutxagan



Urtero bezala, eskulanez beteko da: bitxigintza, larrugintza, zeramika, egur lanketa, otargintza... 30 postu inguru, aukera zabalarekin.

AUZOETAKO JAIK

Uztailak 7-10 Julio
NARRONDO

Abuztuak 24-28 Agosto
OIKIA

Irailak 28-30 Septiembre
ARTADI

Kolorez Bizi

zumaiian

La plaza Eusebio Gurrutxaga acoge la Feria anual de artesanía con alrededor de 30 puestos: bisutería, curtido, cerámica, tallado...

ABUZZTUA AGOSTO

ZUMAIKAKO MUSIKA JAIKALDIA FESTIVAL DE MÚSICA DE ZUMAK

Uztailaren
31tik
abuztuaren
12ra
Desde el 31
de julio al 12
de agosto



ABUZZTUAK 4 AGOSTO

Gala Gava



Zumaiaren egunik dotoreena dugu, zalantzarik gabe, Gala Gava! Atera ezazu armairutik zure jantzirik eleganteena, jantzi soinean eta atera kalera ospatzera!

Saca a relucir tus mejores galas y celebra el que es, sin duda, el día más elegante de Zumak!

ABUZZTUAK 10 AGOSTO

Euskal jaia



ABUZZTUAK 18 AGOSTO



Kuadrilen
Eguna
Día de las
cuadrillas

IRAILA SEPTIEMBRE

IRAILAK 1 SEPTIEMBRE



Zumaiako
triatloia

IRAILAK 15 SEPTIEMBRE



Olarro
Eguna

IRAILAK 29 SEPTIEMBRE

Euskal
Kosta
Krosa
(Zarautzen)



TOKIKO MERKATARITZA INDARTZEN

Herri bat guztiz desberdina litzateke inolako dendarik gabe. Konturatu ere ez gara egiten baina dendeak, herri bat osatzen duten establezimendu txiki guztiek, beharrezko produktuak gure eskura jartzeaz gain, bizia, alaitasuna eta giroa ematen diote herriari. Herritarrak jantzi edo elikatzeaz gain, herria bera jantzi eta elikatzen dute. Aurreko alean adierazi bezala, Udalaren helburua da herriko merkataritza establezimenduen garrantzia azalartzea eta haien egoeraren eta lanaren berri ematea, erakusleihatik ikusten dugunaz haratago, saltoki bakoitzean arreta ematen diguten pertsonak eta haien lana ezagutu, balioan jarri eta indartzeko. Tokiko merkataritza eta tokian tokiko kontsumoa berpiztu eta bultzatzeko, alegia.

TXIMAK ILEAPAINDEGIA



La peluquería Tximak lleva ya 35 largos años cuidando del cabello y de la belleza de las y los zumaiarras. 35 años de experiencia y buen trato en los que, el equipo de Tximak Ilepaindegia, con Antto a la cabeza, cada día nos ofrece la última moda en cuanto a peinados, color y cortes de pelo. Y no solo eso, Tximak Ilepaindegia ofrece también tratamientos estéticos como la depilación láser, uno de los servicios socialmente más demandados hoy en día. Sin duda esta es una peluquería con una larga trayectoria y un lugar de confianza donde acudir para ponernos más guapas y guapos aún si cabe.

35 urte daramatza Tximak ile-apaindegiak zabalik Zumaiian. Zein izan da urte hauetako bilakaera?

Eboluzioa beti izan da positiboa, hau da, negozioak beti egin du onerantz, baina egia da azken urteetan, bereziki hemen BEZa igo zenetik lan karga askoz ere ahulagoa dela. Hortaz gain, pelukeria gehiago zabaldu dira herrian, beraz, aukera zabalagoa da eta etxean ere lan gehiago egiten dira. Hori guztia, noski, nabarmendu egiten da egunerokotasunean. Baina esan bezala, "krisis" moduko hori BEZa igo zenetik antzeman dugu gehienbat.

Zein adin motako jendea da bezerorik ohikoena? Eta zein zerbitzurik kontsumituena?

Adinari erreparatuz 40 eta 65 inguruko bezeroak izan ohi dira sarrien etortzen direnak eta zerbitzurik kontsumituena, dudarik gabe, ileapaindegiarena da:

orraztu, tindatu, moztu... Gaur egun ere asko demandatzen hasi dira keratina tratamenduak, ilea liso mantentzeko edota afro orrazkerak. Azken modan dauden bi orrazkerak dira.

Egungo egoera eta gizarte aldakorrari erreparatuta, beharrik ikusi al duzue zerbitzu eskaintza zabaldu edota egokitzeke?

Noski. Beti gabilta berritasunaren bila, hau da, gure eskaintza etengabe berritzen saiatzen gara, hain zuzen bezeroek gauza berriak eskatzen dituelako. Adibidez, hemen, laser eta depilazio zerbitzuak ere eskaintzen ditugu eta orain mikropigmentazioa eskaintzen ere hasi nahi dugu, berrikuntza moduan.

Moda eta tendentziak jarraitzeko ikastaroak egiten dituzue?

Hori betidanik egin ohi dugu. Ezin da utzi gainera! Ezinbestekoa da gure lanean egunean mantendu eta tendentzia eta moda berriak ezagutzea, hori baita ondoren

bezeroek eskatzen dutena. Datorren hilean, adibidez, Valentziara goaz ikastaro bat egitera. Beste zenbaitetan Madrilera ere joan izan gara, baina gaur egun Donostian eta Bilbon ere eskaintzen dituzte hitzaldi edota ikastaroak eta batik bat horietara joaten gara.

Sare sozialik ez duzue erabiltzen. Zergatik? Etorkizunera begira jendea erakartzeko aukera gisa bezala erreparatzen diozue?

Orain arte ez ditugu erabili ez nuelako sare sozialen inguruan nahikoa ezagutarik. Orain, ordea, ikastaro batzuk egin behar ditugu ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Beraz, laster Tximak ile-apaindegiak, webgunea izateaz gain, bere sare sozialak ere izango ditu. Azken finean, nik neuk ere ikusten dut gaur egun gero eta enpresa gehiagok erabiltzen dituztela sare sozialak bezeroak erakartzeko modu bat bezala, beraz, geu ere ez gara gutxiago izango!

HIRU EZKUR



La tienda Hiru Ezkur de Zumaia es un negocio familiar regentado por las hermanas Leire y Edurne, quienes llevan el negocio con ayuda de una tercera empleada, Amalia. Originariamente fue su padre quien, con ayuda de dos socios más, emprendió la idea de abrir este negocio y quien dos-tres años más tarde de su apertura se quedó al mando de la empresa. Fue entonces cuando Leire y Edurne comenzaron a trabajar, junto a su padre, en el negocio familiar. Hiru Ezkur es una tienda especializada principalmente en productos ibéricos. En la tienda podéis encontrar jamón (cortado a máquina o a cuchillo), una gran variedad de embutidos (chorizo, lomo, salchichón...) aceites, quesos, vinos, dulces, patés, carne... Como bien dicen Leire y Edurne "la mejor calidad, siempre al mejor precio".

Zein da, saltzeaz haratago, zuen egunerokotasuneko lana?

Gure lana, nagusiki, dendan ditugun produktuak bezeroei eskaintzea da, baina horrez gain, komertzial lanak ere egiten ditugu, tabernetara joanez.

Edurne da komertzial lan horietaz arduratzen dena. Kasu honetan, bere egin beharra da tabernei bisita egin eta aste bakoitzerako behar dituzten produktuak eramatea. Bereziki Zumaiaiko tabernekin egiten dugu lan, baina baita Zestoa, Azpeitia, Azkoitia eta Zarauzko beste hainbatekin ere.

Gure beste langilea Amalia da. Bera soilik arratsaldetan egoten da dendan, eta bere egitekoa da dendara gerturatzen diren pertsonen arreta ematea.

Eta Leireren egin beharra, hau da, nirea, dendako martxa eramatea da. Alegia, goizetan dendan arreta emateaz gain, nire eginkizuna da dendan falta diren produktuak begiratu eta eskaerak egitea, fakturazio guztia egunean eramatea (kobrantzak eta ordainketak), dendako garbiketa egitea...

Zein izan da dendaren bilakaera azken urteotan?

Hasi berritan bezeroen portzentaje handi bat Extremadurakoa zen.

Baina denborarekin pertsona orori zuzenduriko denda bat izatea lortu dugu.

Lehen hamar urteak zubiaz bestalde egin genituen, Txomin Agirre kaian. Bertan oso gustura egon ginen lanean, baina denbora horren ostean, gaur egungo tokira lekualdatu ginen, Alai auzategira, alegia.

Toki aldaketak ez zuen eraginik izan gure lana egiteko moduan, baina bezero aldaketa bat eragin zuen. Edonola ere, han ala hemen, beti izan da herriko jendea dendara etorri zaiguna eta gu beti egon gara oso gustura gure bezeroekin. Are gehiago, horiei esker jarraitzen dugu lanean.

Online erosteko aukera ere eskaintzen duzue. Zer nolakoa da internet bidezko eskaria eta erabiltzen al dute herritarrek aukera hori?

Online erosteko aukera etorkizuneko proiektu bat dela esango genuke. Momentuz internet bidezko eskaria oso baxua da. Bezero frantses eta italiarrak baditugu interesatuak, baina oraindik ez gara jarri horrekin lanean.

Denda fisikora gerturatzen direnen adinari erreparatuz, zeintzuk dira eroslerik ohikoenak?

Goizez eroslerik ohikoenak emakume eta jubilatuek dira, arratsaldean, aldiz, denetarik.

Azkenaldian azalera handiko supermerkatuak zabaldu dituzte herrian. Eraginik izan al du horren dendan?

Zumaia bezalako herri txiki batean oraindik mantentzen da establezimendu txikitik erosteko joera. Nahiz eta supermerkatu handitan guztia eskura dugun, jendeak denbora hartzen du bere egunerokotasunean erosketak komertzio desberdinetan egiteko.

Gu produktu konkretuetan espezializatuak gaudenez, jendeak konfiantza handia du guran zein gure produktuetan, kalitatea bermatzeaz gain, besteengandik desberdinak direlako. Horregatik jotzen dute gugana.

Zein dira establezimendu txikien abantaila eta desabantailak?

Abantailarik handiena tratu pertsonala da. Bezeroekin egunerokotasunean oso harreman polita eta estua eraikitzen da. Establezimendu txikietan, gainera, ohikoa da gauza ezberdinez ere hitz egitea eta hori bezeroak asko estimatzen duen gauza bat da. Desabantailarik ez dut ikusten.

Bien es cierto que vivimos en una sociedad donde la esperanza de vida va en aumento, gracias a lo cual, a día de hoy llegamos a convivir cuatro incluso cinco generaciones a la vez. En relación a ello, el Ayuntamiento ha querido prestar especial atención a la generación más adulta de todas, a nuestros mayores.

Para ello, desde el Departamento de Servicios Sociales ha diseñado un proyecto que tiene como principal objetivo la realización de un estudio de necesidades sociales y la elaboración de un diagnóstico social de las personas mayores de 75 años que viven en Zumaia y que no son conocedoras de los servicios sociales que se prestan en el municipio y/o que, durante los últimos dos años no han mantenido contacto y/o seguimiento con dicho departamento.

A este proyecto lo ha denominado como "Observatorio de las personas mayores" y mediante el mismo se logrará obtener una información detallada y objetiva de la situación de estas personas así como de sus necesidades de forma que, a su vez, el Ayuntamiento y especialmente el departamento de Servicios Sociales podrá valorar los servicios y prestaciones existentes y el grado de adecuación de las mismas para dar respuesta a las necesidades actuales y futuras.

Pertsona edadetuen behatokia



"Pertsona edadetuen behatokia": Zumaiaiko adinekoak nola bizi diren ezagutzeko ikerketa

"Zer nolako Zumaiaiko nahi dugu?" galderari erantzun argi eta garbia eman diogu zumaiaarrok: pertsonengan zentratutako herria nahi dugu.

Hori da, hain zuzen, Udalean herritarren parte hartzearekin osatutako Plan Estrategikoan jasotzen dena. Eta Plan horren baitan onartutako helburu estrategikoei erreparatuz gero, herrian eskaintzen diren zerbitzuak kalitatezkoak izatea da helburuetako bat.

Horri lotuta, egoera konplexuetan eta zailtan dauden pertsonen alde agertzea eta pertsona nagusien beharrak ezagutu eta jasotako eskaerak betetzeko zerbitzuak garatzea jo dugu garrantzitsutzat zumaiaarrok.

Izan ere, gaur egungo gizartean, bizi itxaropena gero eta luzeagoa da eta horri esker, zenbaitetan 4

edota 5 belaunaldi ere elkarrekin bizitzera heldu dira. Baina, ba al dakigu nola bizi diren edo nolakoa den gure herriko nagusien bizia eta bizimodua?

Nagusiki galdera horri erantzuna emateko sortu du udal gobernauk, hain zuzen, "Pertsona edadetuen Behatokia" proiektua.

Zer da "Pertsona edadetuen Behatokia"?

Proiektu horren helburua da herrian bizi diren 75 urtetik gorako pertsonen gizarte beharren ikerketa eta diagnosia egitea, bereziki gizarte zerbitzuen ezagutza ez dutenen edota azken bi urteotan Gizarte Zerbitzuekin inongo hartu eman edo kontakturik izan ez duten pertsonena.

Proiektu honen bitartez ezagutu nahi da pertsona horien guztien errealitatea zer nolakoa den: familia eta gizarte harremanak, egoera pertsonal zein ekonomikoa, osasuna, etxebizitzaren egoera eta baldintzak, aisialdia...



Zertarako balioko du?

Behatokiak bereziki, 75 urteko zumaiar adinekoen egoeraren ezagutza zehatz zein objektiboa lortzen lagunduko digu, gaur egun pertsona horiek dituzten beharrak eta proposamenak ezagutu eta jasoz.

Horrez gain, gaur egun Udalak, eta kasu honetan, Gizarte Zerbitzuen sailak eskaintzen dituen zerbitzu eta prestazioen egokitasuna baloratzeko ere balioko digu, horrela, aipatu zerbitzu horiek egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuna emateko moldatzea ahalbidetuz.

Eta azkenik, adinekoei Gizarte Zerbitzu sarearen inguruko zerbitzu eta prestazioen informazioa helaraztea ere ahalbidetuko digu, guztiek jakin dezaten beren eskura dauden zerbitzuak zeintzuk diren.

Nola garatuko da?

Ikerketa edo diagnosia 3 fasetan banatuko da.

Lehen fasean 75 urtetik gorako herritarren analisi soziodemografikoa landu eta bigarren faseko materiala prestatuko dira bereziki. Material horren artean, elkarriketa pertsonalak landu edota gizarte zerbitzuen berri emateko informazio orria osatuko dira.

Bigarren fasean, elkarriketa pertsonalak egingo dira, banaka banaka, eta etxez etxe. Zumaiar guztira 75 urtetik gorako eta egungo zerbitzuen ezagutza ez duten edota azken bi urteotan Gizarte Zerbitzuekin inongo hartu eman edo kontakturik izan ez duten 641 pertsona bizi dira.

Bigarren fase honetan, beraz, pertsona horiek guztiak elkarriketatuko dira, aldeaz aurretik, noski, beren baimen eta onespenezekin. Elkarriketa horietan jasoko dira datu pertsonalak, elkarbizitzakoak, eguneroko bizitzaren antolaketa,

autonomía-mendekotasun maila, zaintza beharrak, etxebizitza barru zein kanpoko irisgarritasuna, gizarte harremanak, aisialdi ekintzak, zerbitzu eta prestazioen ezagutza edota etorkizunerako proposamen, nahi edota eskaerak, besteak beste.

Azken fasean, jasotako datuekin txostena osatuko da, non, konklusio, proposamen eta gomendioak egingo diren etorkizunera begira, aipatu pertsona talde honen behar eta eskaerei erantzuna emateko.

Noiz egingo da?

Udalak lizitaziora atera berri du aipatu proiektua. Esleipena lehiaketa publiko bidez egingo da eta behin zerbitzua adjudikatuta, enpresa esleipendunak 6 hilabeteko epea izango du diagnosi osoa egin eta aurkezteko.

Lan horietara bideratuko ditu udalak, hain zuzen, 55.000€





LEGEALDIKO AZKEN TXANPARAKO PREST!

Zumaiako EAJ-PNVk orain eta beti jarraituko du Zumaia eta zumaiarren alde lanean, herria eta herritarren oraina eta etorkizuna eraikiz

Gezurra badirudi ere jada hiru urte igaro dira 2015eko maiatzaren 24an zumaiarrek euren aldaketa nahia eta herria aktibatzeako beharra hautestontzietan islatu eta helarazi zutenetik. Hiru urte jada, Zumaiako EAJ-PNV udaletxera sartu zenetik, herriak eta herritarrek hala erabakita.

Gure ibilbidean herria eta herritarrak izan dira eta izango dira, beti, gure lehentasuna, eta beraingandik

gertu egotea eta euren beharrak asebetetzea gure helmuga. Eta hain zuzen zumaiarren ongizatea eta haiei egokitutako herria eraikitzeako bidean, ekonomiaren garapena indartzea, herri atsegin eta irisgarriagoa eraikitzea eta herritarrei kalitatezko zerbitzuak bermatu eta aukera berriak eskaintzea izan dira gure lan ardatz nagusiak.

Horretarako, noski, ezinbestekoa izan da, lehen urrats gisa, zuhertasun printzipioa aplikatu eta kudeaketa on eta eraginkorraren bideari heldzea. Eta azken hiru urte hauetan egindako lan horri esker lortu dugu, hain zuzen, udal soberakina hirukoiztea eta horrekin, aldi berean, Zumaia eta zumaiarrentzat onuragarriak izan diren hainbat eta hainbat proiektu egin eta beste asko abiaraztea: TAO, Alokairu Beka, San Jose eta Larretxoko



OLATUA OSO HANDIA DA...

...eta hobe dugu aurre egitea bizkarrez eta ustegabeen jasotzea baino

Turismo Planean azaltzen diren hitzak dira, eta herritar askoren sentipena ondo baino hobeto laburbiltzen dute. Plan hori adostea urte osoko prozesua izan da, metodologia berezi xamarra erabili dugu, baina parte-hartzeari garrantzi handia eman zaio, aurrerantzean ere ezinbestekoa izango dena.

EH Bilduk jarrera proaktiboa izan du, ekarpen asko eginez, eta gure asmoa TURISMOAREN GEHIEGIZKO

HAZKUNDEAK izan ditzakeen ondorio larriei aurrea hartzea izan da, horretarako planean mekanismo egokiak txertatuz, hiru helburu bermatze aldera:

- 1.- Ingurune naturala babestea. Zumaiarren kezka nagusienetakoa da, eta behar izanez gero, muga zorrotzak jartzea gu guztion esku legoke.
- 2.- Espazio publikoaren pribatizazioa saihestea, mugak aurreikusiz. Espazio publikoak giza harreman sano, aske eta askatzaileak ahalbidetu behar ditu, harreman merkantilistak ez daitezela nagusi izan.
- 3.- Gizartean, orohar, izan daitezkeen ondorioei adi egotea, egitura sozioekonomikoari eusteko (turismoaren nagusitasuna saihestuz), etxebizitza turistikoa arautzeko, lan baldintza uinak bermatzeko, eta abar....



UDA SASOIARI BEGIRAKO BALANTZEA

Nos encontramos a puertas de la llegada del verano. El año pasado por estas mismas fechas y en este mismo medio los socialistas comentábamos diferentes temas que a nuestro modo de ver tenían una gran importancia para Zumaia.

Hablábamos por ejemplo de la relevancia para el municipio de un tema como es el turismo, señalábamos la gran oportunidad que podía ser para todos los vecinos

y vecinas, su tratamiento y desarrollo de una manera sostenible de cara a generar una riqueza importante en el orden económico pero también en el social y cultural aprovechando los innumerables recursos que la zona posee. A lo largo de este año desde el área de turismo se ha realizado una gran tarea que ha llevado a la aprobación precisamente de un gran plan de turismo que ha recibido la aprobación de todos los grupos municipales y que queremos reconocer expresamente pues no era tarea fácil. Creemos que se ha iniciado con él un recorrido en la línea que perseguíamos y que puede hacer de Zumaia un lugar muy especial.

Uda sasoirako aparkaleku arautuaren inguruan ere hitz egiten genuen. Joan den urtekoa esperientzia pilotu bezala ikusten genuen, 2018ra begira herria

igogailuak, Marianon parkea estaltzea, Skate park berria egitea....

Orain, 2015-2019 legealdiko azken txanparen atarian gaude eta Zumaiako EAJ-PNV azken urteari heltzeko inoiz baino gogotsuago eta indartsuago dago. Ilusioz, erantzukizunez eta erronkaz beteriko hiru urte izan dira, baina ozen asko esan dezakegu, bizitako guztiak, onak eta ez hain onak, aski aberasgarriak eta suspergarriak izan direla etorkizunera begira ere, Zumaia eta zumaiarren etorkizuna herritarrekin elkarlanean eraikitzen jarraitzeko.

EAJ-PNVk herri bizi baten aldeko apustua egiten du eta hori lortzeko Zumaia eta zumaiarren alde behar adina lan egiteko prest gaude orain eta beti!

Ya han pasado tres años desde que la ciudadanía zumaiarra dejó más que claro en las urnas electorales su necesidad de cambio. Tres años en los que EAJ-PNV de Zumaia ha trabajado por y para hacer avanzar y crecer Zumaia y mejorar el bienestar y la calidad de vida de su ciudadanía, prestando especial atención para ello al fomento de la economía y el empleo, a la construcción de un municipio amable y accesible y a la mejora de servicios para ofrecer a la ciudadanía nuevas oportunidades en todos los ámbitos.

Ahora nos sumimos ya en la última fase de la legislatura y en este último año y en todos los venideros desde EAJ-PNV seguiremos trabajando como hasta ahora para abogar siempre por un futuro mejor para Zumaia y las y los zumaiarras.

Eta helburu hauek lortzeko bi tresna:

1.- TURISMO BEHATOKIA: neurketak egiteko, besteak beste Zumaiak jasan dezakeen bisitari kopuru gorena (iraunkortasuna bermatuz), gero erabakiak hartu ahal izateko, non eta 2.- TURISMO MAHAIA: eragile eta sektore guztiak ordezkaturik egongo diren gune anitzak, turismoaren inguruan hartu beharreko erabaki GUZTIETAN erreferente izango den gune kolektiboa, LIDERGO KOLEKTIBO KOMUNITARIOA gauzatuz, planak dioten bezala.

Baina planean badaude kritikatzeko moduko baieztapenak, "Hazkunde jarraitu eta jasangarria" gehiegizko fede (gure ustez itsua) azaltzen da behin baino gehiagotan, eta gure herrian inpaktoa duten erabakiak hartzen dituzten erakundeetan, turismoaren hazkundea sustatzeko estrategiak nagusi dira, iraunkortasuna kolokan jarri dezaketenak.

Guzti hau kontutan hartuta, EH Bilduk baieztatu kritikoa eman dio plan honi, herritarren kezka nagusiei erantzuteko moduko mekanismoak ahalbidetzen dituelako.

Gure aldetik, konpromiso osoa hartzen dugu mekanismo horiek %100ean aktibatzeke ahalgin guztiak egingo ditugula, betiere hitza eta erabakia zumaiar guztionak dela kontuan hartuz.

EH BILDU le da un voto afirmativo pero crítico a su vez al Plan de Turismo de Zumaia, porque creemos que tiene mecanismos para responder a la preocupaciones de los zumaiarras en este tema, pero también tiene unos conceptos como Crecimiento Sostenible, que creemos son difíciles de llevar a cabo, viendo las políticas de Turismo que llevan adelante las instituciones y que tienen un impacto negativo en Zumaia

osotasunean arautzeko garatu beharrekoa. Aurtengo udan sistema herrian oro har zabaldu da eta zona guztiak era parekatuan arautzen ditu. Desberdintasunak sortzen dituzten puntuak daude ordenantzan, nabarmenki hobetu litezkeenak, hortik dator ordenantzaren onarpenean izan genuen jarrera, baina aitortu nahi dugu, delikatu eta zaila den gai honetan, urte honetan zehar lanean aritu diren pertsonak eta baita Udalak egindako esfortzua. Izan ere, dena den, herritarrentzako hobekuntza eragingo duela uste baitugu.

Estamos en un momento decisivo de la legislatura y seguiremos defendiendo temas que hemos pedido desde el inicio como es la mejora de la accesibilidad a determinadas zonas y en concreto la definitiva construcción del Ascensor en San José que esperamos

se inicie al finalizar el verano.


No queremos terminar estas líneas sin hacer una mención a las mujeres de Zumaia en general y al movimiento feminista en particular por lo acontecido el día ocho de marzo pasado, saliendo a las calles en un día histórico con un clamor en la exigencia de la igualdad real.

Bide luzea geratzen zaigu eta gauza asko egiteko, garai zalantzatiak etor daitezke, baina sozialistok, beti bezala, zumaiarren defentsan esku bat botatzeko prest izango gara.

Agur bero bat eta uda ona igaro. Beti bezala hemen duzue gure posta elektronikoa gurekin harremanetan jarri nahi duzuenarako.

arritxu-maranon@socialistasguipuzcoanos.com

2018/06/15 - 2018/09/15



IBAI PASA SERVICIO DE PASAJE

 11:00 - 13:30 // 15:10 - 20:30
20' (11:00 - 11:20 - 11:40...)

 11:15 - 13:45 // 14:45 - 19:45
30' (11:15 - 11:45 - 12:15...)

UDAKO AUTOBUSA BUS DE VERANO

 11:00 - 14:00 // 16:30 - 20:30
30' (11:00 - 11:30 - 12:00)



Non dago autobusa orain?
¿Dónde esta el autobús ahora?



 DOAN GRATIS

E/R EGOILIARRAK
RESIDENTES

TAO/OTA

Egunero Todos los días 10:00 - 21:00

6 11 ORDU HORAS 

 90 MIN



Astelehenetik ostiralera
De lunes a viernes
08:00 - 20:00

Larunbatak
Sábados

Besteak eta jaiegunak
Resto y festivos

1 08:00-13:00

2 08:00-20:00

3 08:00-13:00

6

E/R

E/R

UDALA SAREAN



688 844 400

FACEBOOK
ZUMAIKO UDALA

TWITTER
ZUMAIKO UDALA

YOUTUBE
ZUMAIKO UDALA

WEB
ZUMAIA.EUS

UDAL WHATSAPPA
ZURE ZERBITZURA!